PARA MÁS INFORMACIÓN

dime...

902 230 400

teléfono joven

web:www.dimejoven.net
E-mail:dime@dimejoven.net

NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA

# UDA 2009

## Programa de Actividades



Gobierno de Navarra

2012 | CONTIGO AVANZAMOS

Instituto Navarro de la Juventud

# NAFARROA GAZTEA 2009

Nafarroako Gazteriaren Institutuak aurten ere zuentzat prestatu duen "2009ko udako jarduerak" programa eskaintzen dizue.
Programa honek garrantzi berezia du guretzat, bi arrazoirengatik. Alde batetik, hainbat jardueratan parte hartzeko aukera baino zerbait gehiago eskaintzen duelako, bizipen sakon bat izanen baita. Beste eskualde eta herrialde batzuetako gazteak ezagutzea, toki ezezagunak deskubritzea, atzerriko hizkuntzak ikastea, beste ohitura batzuk bizitzea, erran nahi baita, mundu zabalera jauzi egitea, gazte garaian nahitaez egin beharreko zerbait da. Beste alde batetik, NGIak eginahal guztiak egin behar dituelako, jarduera bakoitza prest edukitzeko. Guk nahi genuke bizipen honetan deus falta ez izatea eta udak berarekin dakarren alaitasun giroan gertatzen den guztia oroitzapen ahaztezina bihurtzea.

*Beti bezala, espero dut aukera hau erabiliko duzuela ikasteko, gozatzeko, sentitzeko eta bizitzeko, beste gazte batzuekin batera.*

***Ana Frìas Pardo***
*Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea*

## 2009KO UDAKO JARDUERAK

12 urtetik 19era bitarteko adin zerrendan zaudetenok orri hauetan aurkituko duzue 2009ko udako programako informazioa.

Hemendik gutxira beste liburuxka bat argitaratuko da, eta 18 urtetik 30era bitartean zaudetenok hor kontsultatzen ahalko duzue auzolandegi solidarioei buruzko informazioa proiektu horietan parte hartzeko, Nafarroan, beste autonomia erkidego batzuetan eta Europar Batasuneko eta hortik kanpoko munduko hainbat herrialdetan. Auzolandegietarako izen-ematea apirilaren 20an hasiko da, zein ordenatan ailegatu, horren arabera.



## AURREINSKRIPZIOARI BURUZKO OHARRAK

Aurtengo udako jarduerak hiru sailetan banatu dira:

**1.- Jarduerak Nafarroan.**
**2.- Beste autonomia erkidegoetan.**
**3.- Atzerrian.**

Apirilaren 1ean, asteazkena, hasiko da izena emateko epea eta 24an, asteazkenarekin, amaituko.

## NOLA EGIN AURREINSKRIPZIOA?

Deitu "Esan...Gazte Telefonoa" 902 230 400 zenbakira, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 19:30era. Zure datuekin nahi dituzun sailetan eginen duzu aurreinskripzioa, baina behin bakarrik haietako bakoitzean. Horrela jabetuko zara sail bakoitzean duzun zenbakiaz. Zenbaki horrek, zozketa egin ondoren, izena emateko ordena adieraziko du.

Aurreinskripzioa egin dezakezu, orobat, ondoko web orriaren bidez: www.dimejoven.net



## ZOZKETA

Apirilaren 27an, goizeko 10:00etan, eginen da zozketa (ez plazena, izena emateko ordenarena baizik) Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzan. Hiru zenbaki aterako dira, jarduera sail bakoitzeko bat.

Egunkarietan agertuko da emaitza, eta jendaurrean jarriko da Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzan, Nafarroako Gazteriaren Institutuan eta Tafallako, Lizarrako eta Tuterako gazteen informazio bulegoetan, eta web orri hauetan: www.navarra.es, www.dimejoven.net eta www.infojoventudela.es.

## IZEN-EMATEA

Zozketan ateratako zenbakia izanen da lehena izena emateko, eta haren ondotik gainerakoak. Bere txanda iritsitakoan izena ematen ez duenak plaza hartzeko eskubideari uko egiten diola ulertuko da, eta hurrengo zenbakiaren jabearen eskuetara pasatuko da.

Jarduera bakar batean eman dezakezu izena. Lehentasuna izanen dute aurreko urteetan jarduera horretan aritu ez diren gazteek.

Maiatzean eginen da, egun hauetan:

- **Atzerria:** astelehena, 4, asteartea, 5, eta asteazkena, 6.
- **Autonomia erkidegoak:** osteguna, 7, ostirala, 8, eta astelehena, 11.
- **Jarduerak Nafarroan:** asteartea, 12.



Plazaren erreserba eginik, izena ematetik 24 ordura eta kuota ordainduta berretsiko da behin betikoz. Bestela, eskubidea galduko da. Izena emateko bertara joan beharko da.

## IZENA EMATEKO TOKIAK

**Iruñean,** Esan &gazte telefonoan, Fuerte del Prìncipe Gazteen Egoitzan, Goroabe, 36.ean.

**Lizarran.** Gazteentzako Informazio Bulegoa. "Marìa Vicuña" Gazteriaren Etxea. Tel.: 948 54 82 24 eta 948 556329

**Tafallan,** Udaletxean. Gazteendako bulegoa. Tel. 948 703449.

**Tuteran,** Lestonnac gazteriaren etxean, gizarte-etxean. San Marcial, 25. Tel.: 948 826367 (sarrerako mezuaren ondoren 1 sakatu)

**Altsasun,** Otadiko Kristo Santua Gazteen Aterpetxea , Zelai, 91. Tel 948 564814

**Baztanen,** Baztan Gazteen Aterpetxea, Lekaroz. Tel 948 581804

## IZENA EMATEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

- **Izena emateko inprimakia,** bertan emanen dena.
- Karneterako argazki bat.
- Osasun **txartelaren fotokopia.**
- Europako **osasun txartelaren fotokopia**, atzerriko jarduueretarako bakarrik.
- **Pasaporte** gaurkotuaren fotokopia, atzerriko jardueretarako bakarrik.
- **NAN**aren fotokopia.
- **Gazte txartelaren** fotokopia (deskontua erabiltzen bada).
- **Ordaindu izanaren ordainagiria** plaza onartzen denean eskatuko da, behin betiko adjudikazioa emateko.



## ADINA

Jaiotzaren urte naturalari dagokio, eta berariazko jarraibideak errespetatuko dira.

## BETE GABEKO PLAZAK

**Maiatzaren 18**tik aurrera, nahi duten gazte guztiek eman dezakete izena bete gabeko plazetan. Ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea.

## KUOTAN SARTUTA DAUDE

- Irteerako eta itzultzeko bidaiak (salbu auzolandegietan eta hori aipatzen duten jardueretan).
- Ostatua aterpetxean eta kanpadendan.
- Mantenua.
- Zuzendaritza teknikoa.
- Programako jarduerak.

# TARIFA MURRIZTUAK

| | Prezioa: | Prezio murriztua (2) |
|---|---|---|
| **Jarduerak Nafarroan:** | 214,00 € | 156,00 € |
| **Jarduerak beste autonomia erkidego batzuetan:** | 234,00 € | 175,00 € |
| | 280,00 € | 210,00 € |
| **Jarduerak atzerrian:** | 486,00 € | 365,00 € |

14 urtetik beherakoei gazte txartelari dagokion prezioa ezarriko zaie.

(2) Jardueren prezioetan murrizketak eginen dira kasu hauetan:

* Familia ugariak.

* Errenta bateratua lanbidearteko gutxieneko soldataren bikoitza edo txikiagoa dutela frogatzen duten familia unitateak, edo familiako burua langabe dagoela frogatzen dutenak.

# KUOTA ITZULTZEA

Ez da kuota itzuliko, salbu ezinbestean, medikuaren agiri ofizialagatik edo jarduera bertan behera gelditzen denean.

# ASEGURUAK

Nafarroako Gazteriaren Institutuak istripuko eta erantzukizun zibileko poliza dauka parte-hartzaileentzat.

Osasun asegurua eta sendagaiak norberaren kontura dira.

# JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Parte-hartzaileek eskutitzak jasoko dituzte, jarduerak hasi baino lehen. Bertan zehatzago azalduko zaizkie datak, beharrezko materialak eta programaren garapena.



# AURREINSKRIPZIOA EGIN ETA ARGIBIDEAK HARTZEKO

**Apirilaren 1etik** (asteazkena) aitzina, telefono honetan:

**"Esan... Gazte Telefonoa"** (902 230 400)

Goroabe, 36

31005 Iruña

**http://www.dimejoven.net**

# INFORMAZIOA:

**Tutera:** 948 826367 (sarrerako mezuaren ondoren 1 sakatu)

**Tafalla:** 948 703449

**Lizarra:** 948 548224 eta 948556329

**Altsasu:** 948 564814

**Baztan:** 948 581804



## JARDUERAK NAFARROAN

## 1. SAILA

| Kod. | PROGRAMA | JARDUERA | DATAK | ADINA | ZENBAT | PREZIOA GAZTE TXARTEL | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Nazioarteko jarduera Italiako eta Txekiako gazteekin** | | | | | | | |
| **Kale animazioa, bertako elezaharrei buruzko antzerki eta zirkuko teknikak** | | | | | | | |
| 101 | Doneztebe | Kale animazioa | 7/22-31 | 1991*-1994 | 28 | 197,00 | 214,00 |
| **Nazioarteko jarduera Alemaniako, Poloniako, Danimarkako eta Italiako gazteekin** | | | | | | | |
| 102 | Urbasa 1 | Ingurumena | 7/1-10 | 1991*-1993 | 30 | 197,00 | 214,00 |
| 102 | Urbasa 2 | Ingurumena | 7/11-21 | 1991*-1993 | 30 | 197,00 | 214,00 |
| 103 | Urbasa 3 | Ingurumena | 7/22-31 | 1991*-1993 | 30 | 197,00 | 214,00 |
| **Auzolandegiak beste autonomia erkidego batzuetako gazteekin** | | | | | | | |
| 104 | San Adrian | Ingurumena | 7/1-15 | 1991*-1993 | 25 | 72,00 | 72,00 |
| 105 | Artaxoa | Ingurumena | 7/15-29 | 1991*-1993 | 25 | 72,00 | 72,00 |

*** 1991. urtean jaiotako gazteek parte hartzen ahalko dute baldin eta jardueraren unean ez badituzte 18 urteak beterik.**



## JARDUERAK BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAN

## 2. SAILA

| Kod. | PROGRAMA | JARDUERAz | DATAK | ADINA | ZENBAT | PREZIOA GAZTE TXARTEL | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ARABA** | | | | | | | |
| **Piragua, windsurfa, arrauna, txangoak, jokoak, gau-bilerak, lantegiak. Ostatua aterpetxean** | | | | | | | |
| 201 | ZUHATZAKO UHARTEA | Nautika | 8/1-11 | 1991*eta 1994 | 10 | 180* | 200* |
| **ANDALUZIA** | | | | | | | |
| **Urpeko igeriketaren hastapena, txangoa itsasontzian, piraguismoa, windsurfa. Ostatua bungalowetan, 4 edo 5 pertsonarentzat** | | | | | | | |
| 202 | GATAKO LURMUTURRA 1 (ALMERIA) | Nautika | 7/1-10 | 1991*-1993 | 20 | 211 | 234 |
| 203 | GATAKO LURMUTURRA 2 | Nautika | 7/11-20 | 1991*-1993 | 40 | 211 | 234 |
| Kirolak, nautika, irteerak, lantegiak | | | | | | | |
| 204 | PUNTA UMBRÕA (HUELVA) | Nautika | 7/4-13 | 1991*-1993 | 25 | 211 | 234 |
| **ASTURIAS** | | | | | | | |
| **Piragua, hondartza jarduerak, ibilaldiak mendian, erreka jaitsierak, argazkigintza, txangoak, kirolak. Ostatua gazte aterpetxean** | | | | | | | |
| 205 | LLANES | Argazkia | 7/17-31 | 1991*-1993 | 20 | 252 | 280 |
| **KANTABRIA** | | | | | | | |
| **Abentura kirolak, nautika, bela, eskalada, rappela, soka-zubi tiroldarra** | | | | | | | |
| 206 | LOREDO 1 | Kanpalekua | 7/1-15 | 1991*-1994 | 25 | 252 | 280 |
| 207 | LOREDO 2 | Aterpetxea | 8/2-16 | 1991*-1994 | 10 | 252 | 280 |
| **Piraguismoa, surfa, skinboarda, kayak-surfa, snorkela, txangoak eta ikustaldi kulturalak** | | | | | | | |
| 208 | NOJA | Aterpetxea | 8/2-16 | 1991*-1994 | 25 | 252 | 280 |
| **GAZTELA - MANTXA** | | | | | | | |
| **Ibilaldiak zaldian, bizikleta, piraguismoa, eskalada, orientazioa, mendi ibilaldiak. Ostatua zurezko etxoletan** | | | | | | | |
| 209 | PIELAGO | Abenturak eta aire zabaleko teknikak | | | | | |
| NAVAMORCUENDE (TOLEDO) | | | 7/21-30 | 1991*-1994 | 25 | 211 | 234 |
| **Espeleologia, erreka jaitsierak J´car ibaian, orientazioa, eskalada, arku-jaurtiketa, rappela, soka-zubi tiroldarra, ibilaldiak mendian, lantegiak. Ostatua aterpetxean** | | | | | | | |
| 210 | TRAGACETE (CUENCA) | benturak eta aire zabaleko teknikak | | | | | |
| | | | 7/21-30 | 1991*-1994 | 25 | 211 | 234 |
| **GAZTELA-LEON** | | | | | | | |
| **Nautika, txangoak eta ingurumen arloko ibilbideak, lantegiak, jokoak** | | | | | | | |
| 211 | NAVARREDONDA | Abenturak | 7/11-20 | 1991*-19 | 25 | 211 | 234 |

## GALIZIA

**Surfa, kayaka, kitesurfa, bodyboarda eta eskalada hastapenak rokodromoan. Egonaldia kanpadendan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 212 | PORTO DO SON (Coruña) | Itsasoa eta mendi ibilaldiak | 7/1-12 | 1994-1995 | 25 | 252 | 280 |

**Hipikako hastapenak eta txangoak zaldi gainean Ibilaldiak mendiko bizikletan. Egonaldia kanpadendan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 213 | MELIDE (Coruña) | Bizikleta eta zaldiak | 7/1-12 | 1994-1995 | 15 | 252 | 280 |

## ERRIOXA

**Zaldiak, nautikako jarduerak, mendi ibilaldiak, lantegiak, ikustaldiak. Ostatua aterpetxean**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 214 | EL RASILLO | Jarduerak, nautika, ibilaldiak | 7/12-21 | 1994-1995 | 15 | 211 | 234 |

## MURTZIA

**Nautika, hondartzako kirolak, boleibola, futbola, saskibaloia. Ostatua aterpetxean**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 215 | "LOS ALC¡ZARES" ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTROA | Nautika | 7/21-30 | 1991*-1993 | 30 | 211 | 234 |

## VALENTZIA

**Parte-hartzean eta elkarbizitzan oinarritutako jarduerak, ingurumenaren ezagutza, hondartzako kirolak, ibilaldiak baratzetan eta laranjadietan barrena. Ostatua aterpetxean**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 216 | BENICASSIM | Nautika | 7/21-31 | 1994-1996 | 48 | 211 | 234 |
| 217 | LA MARINA 1 | Itsasoa eta natura | 8/1-10 | 1994-1996 | 27 | 211 | 234 |
| 218 | LA MARINA 2 | Itsasoa eta natura | 8/11-20 | 1992-1994 | 28 | 211 | 234 |
| 219 | LA MARINA 3 | Itsasoa eta natura | 8/21-30 | 1994-1996 | 18 | 211 | 234 |
| 220 | PILES 1 | Itsasoa eta natura | 8/1-10 | 1991*-1993 | 23 | 211 | 234 |
| 221 | PILES 2 | Itsasoa eta natura | 8/11-20 | 1991*-1993 | 28 | 211 | 234 |
| 222 | SAN CRIST DE MAR (CASTELL") | Hondartza eta itsasoa | 7/1-15 | 1994-1996 | 20 | 252 | 280 |

## Euskarazko jarduerak Gipuzkoako gazteekin.

**Parte-hartzaileek euskaraz aritzeko eta harremana izateko adina jakin behar dute.**
**Film laburrak egiten esku-hartzea. Lantegiak: bat-batekotasuna lantzea, eszenografia, koreografia, atrezzoa, apainketa,**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 223 | LEKEITIO (BIZKAIA) | Film laburra | 7/1-9 | 1991*-1994 | 10 | 211 | 234 |

**Arku-jaurtiketa, bela, windsurfa, kayaka, urpekaritza, quada, paintballa, eskalada, golfa eta txangoak.**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 224 | LA GARBINADA(GIRONA) | Abenturak | 7/11-20 | 1991*-1995 | 15 | 211 | 234 |

**" * 1991. urtean jaiotako gazteek parte hartzen ahalko dute baldin eta jardueraren unean ez badituzte 18 urteak beterik.**
**" **Bidaia parte-hartzailearen gain.**



## JARDUERAK ATZERRIAN — 3. SAILA

| Kod. | PROGRAMA | JARDUERAz | DATAK | ADINA | ZENBAT | PREZIOA GAZTE TXARTEL | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ALEMANIA** Nazioarteko topaketa Italiako, Errusiako, Suediako, Poloniako, Frantziako, Portugalgo, Txekiako eta Alemaniako gazteekin. | | | | | | | |
| Sei herrialdetako gazteen arteko elkarbizitza da xedea. Hainbat jarduera eginen dira: kirola, lantegiak, bideoa, perkusioa, dantza, taldean kantatzea, ikustaldiak eta txangoak Gai nagusiak mugimendua, nutrizioa eta erlaxazioa dira. | | | | | | | |
| 301 | EDERSSE-WEZTLAR 1 | Aterpetxea-dendak | 7/19-31 | 1990-92 | 14 | 438 | 486 |
| 302 | EDERSSE-WEZTLAR 2 | Aterpetxea-dendak | 8/7-19 | 1990-92 | 14 | 438 | 486 |
| **TXEKIA**- Nazioarteko topaketa Italiako, Ingalaterrako, Suediako, Belgikako, Frantziako, Alemaniako eta Txekiako gazteekin. | | | | | | | |
| Topaketa, zazpi herrialdetako gazteekin. Mendiko kirola da programa | | | | | | | |
| 303 | FRYDEK-MISTEK | Aterpetxea | 8/2-12 | 1990-92 | 6 | 438 | 486 |
| **BRITAINIA HANDIA.** Programa gehienbat Lakuen Barrutian izanen da. Kirolak aire zabalean egin eta York konderriko hiriak bisitatuko dira. | | | | | | | |
| 304 | YORKSHIRE-GLARAMARA 1 | Aterpetxea | 7/23-8/2 | 1991*-93 | 26 | 438 | 486 |
| 305 | YORKSHIRE-GLARAMARA 2 | Aterpetxea | 7/27-8/6 | 1992-94 | 26 | 438 | 486 |
| 306 | YORKSHIRE-GLARAMARA 3 | Aterpetxea | 7/31-8/10 | 1991*-93 | 26 | 438 | 486 |
| Programan kirol eta kultura jarduerak bildu dira: gau-bilerak, lantegiak, txangoak eta ingurua ezagutzea. | | | | | | | |
| 307 | WIGHT IRLA-LONDRES | Bungalowak-Aterpetxea | 7/11-20 | 1993-95 | 25 | 438 | 486 |
| 308 | WEYMOUTH-LONDRES | Bungalowak-Aterpetxea | 7/18-27 | 1992-95 | 25 | 438 | 486 |
| 309 | SURREY-LONDRES | Bungalowak-Aterpetxea | 7/25-8/3 | 1991*-94 | 25 | 438 | 486 |
| 310 | LONDRES-OXFORD | Aterpetxeak | 8/1-10 | 1991*-94 | 25 | 438 | 486 |
| Nazioarteko topaketak zenbait herrialdetako gazteekin. Kirol eta kultura jarduerak eginen dira. | | | | | | | |
| 311 | LAKE DISTRICT | Kanpina | 7/11-17 | 1991-93 | 10 | 438 | 486 |
| **ITALIA**- Nazioarteko topaketa. Nazioarteko topaketak zenbait herrialdetako gazteekin. Aztertuko da gazteen parte-hartzea Europan. | | | | | | | |
| 312 | VERONA BARDOLINO 1 | Aterpetxea | 7/1-10 | 1991-93 | 10 | 438 | 486 |
| 313 | VERONA BARDOLINO 2 | Aterpetxea | 7/15-24 | 1991-93 | 12 | 438 | 486 |
| Elkarbizitza gazte italiarrekin, Padovan. Bizikidetzari buruzko jarduerak, bisitaldiak, lantegiak eta txangoak. | | | | | | | |
| 314 | PADUA | Aterpetxea | 7/3-13 | 1991*-93 | 10 | 438 | 486 |
| **SUEDIA**- Nazioarteko topaketa | | | | | | | |
| Elkarbizitza zazpi herrialdetako gazteekin, "Young, leading Young". Kirolak aire zabalean, gazte taldeen gidari izateko interesa dutenentzat. | | | | | | | |
| 315 | GOTLAND (Itsaso Baltikoko uhartea) | Bungalowa | 7/31-8/9 | 1990-92 | 7 | 438 | 486 |
| **POLONIA** - Nazioarteko topaketa. Kirolak aire zabalean. | | | | | | | |
| 316 | A\|eczki, PoznaD-dik hurbil (WIELKOPOLSKA) | Kanpalekua | 7/21-30 | 1990-92 | 5 | 438 | 486 |
| 317 | VARSOVIA | Aterpetxea | 7/17-26 | 1990-92 | 7 | 438 | 486 |

**" * 1991. urtean jaiotako gazteek parte hartzen ahalko dute baldin eta jardueraren unean ez badituzte 18 urteak bete.**
**" Prezioan ez da sartzen txartelen ordainketa.**